

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

**12/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko ekitaldiko aurrekontuak 2/2019 kreditu gehigarria eta hari dagokion 2/2019 konpromiso kreditua sortzekoa, eta 2018ko azaroaren 16an Arabako Samaniego herrian gertatu zen suteak kaltetutako makineria ordeztekoa eskuratzeko laguntza berezien lerro bat baimentzekoa**

Arabako Batzar Nagusiek, 2019ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

12/2019 Foru Araua, martxoaren 27koa, Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko ekitaldiko aurrekontuak 2/2019 kreditu gehigarria eta hari dagokion 2/2019 konpromiso kreditua sortzekoa, eta 2018ko azaroaren 16an Arabako Samaniego herrian gertatu zen suteak kaltetutako makineria ordeztekoa eskuratzeko laguntza berezien lerro bat baimentzekoa.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Joan den 2018ko azaroaren 16an sute suntsitzaile bat gertatu zen Arabako Samaniego herrian, guztira hamabost pabilioi eta haietan biltegitratzen ziren gauzak eta makineria guztiz suntsitu zituena.

Sutearen tamainaren ondorioz pabilioiak eraitsi behar izan ziren eta haietan gordetzen zen makineria guztiz erabilerazina da; horrek kalte ekonomiko eta sozial larria dakarkie auzoko askori, zeinak nagusiki nekazaritzan eta mahastizaintzan baitihardute, baina baita beste jarduera ekonomiko batzuetan ere.

Egoera horrek ziurgabetasun handia sortu du eragindako ustiattegietan eta haien etorkizuneko bideragarritasuna jarri du arriskuan, haien iraupena arrisku larrian jarrita. Hori dela eta, beharrezkoa da jasandako kalteak arintzeko mekanismoak bideratzea, kaltetutako ustiattegien jarduera leheneratu eta berriz hasteko. Ustiategi horiek berehala ordeztu behar dute suntsitutako makineria, nekazaritza zein industriakoa, eta lanei berrekin, halako moldez non haien jarduera ekonomikoa ahalik eta gutxien kaltetzen den.

Horretarako, har daitezkeen neurrien artean, eraginkorrenetako bat laguntza bereziak ezartzea da makineria ordezteko, bai nekazaritzakoa bai bestelako jarduera ekonomikoari atxikitakoa, gehiago luzatu gabe. Laguntza horiek kaltetutako pertsona edo erakundeei emateko, Arabako Foru Aldundia foru dekretu proiektu bat ari da idazten haien oinarriak arautzeko baina, aurrekontuen luzapen egoeran dagoela kontuan hartuta, horretarako baimenik eta laguntza horiek eragindako gastuak egozteko partida egokirik gabe, ondorioz, dagokion foru arau proiektua izapidetzea proposatzen da haiek onartu eta partida sortu berria behar beste kredituz hornitzeko.

Gauzak horrela, abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoak, aurrekontuaren luzapen araubidea arautzen duen 87. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz, zeinak luzatutako aurrekontu ekitaldia amaitu aurretik sinatutako urte anitzeko eraginkortasuneko xedapen eta hitzarmenen bidez onartutako dirulaguntzak ematea baino ez baitio baimentzen Aldundiari, Foru Ganberako baimendu beharko du bestelako laguntzak edo dirulaguntzak onartzea.

Bestalde, horretarako partida ondoz ondoko urte bita banatuta ordainduko bada ere, gauden datak direla eta, 2019ko urtarrilean, eta kaltetutako ustiategiak makineria ahalik eta lasterren ordeztzen saiatuko direlakoan, hau da ekitaldi bakoitzari esleitutako aurrekontua:

KONTZEPTUA	2019	2020
Samaniegoko suterako laguntza bereziak	700.000,00	250.000,00

Ondorioz, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailek eta Nekazaritza Sailek kreditu gehigarri bat sortzea eskatzen da, 950.000,00 eurokoa; haietatik, 700.000,00 euro "19.5.19. 1.40100.4100.7700001 Makineriako laguntza bereziak" partida sortu berriko ordainketa kredituari dagozkio, eta 250.000,00 euro horretarako sortutako 2020ko urteko konpromiso kredituari dagozkio. Urteko banaketa hau ateratzen da hortik:

PARTIDA	19.5.19	19.6.20
40100.4100.7700001 Makineriako laguntza bereziak	700.000,00	250.000,00

Kreditu gehigarri hori 2019ko ekitaldirako luzatutako gastuen gaineko sarrera soberakinaren bitartez finantzatu da.

Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko Ekonomia eta Aurrekontu Erregimenari buruzkoak, kreditu gehigarriari buruzko 67. artikuluan xedatzen duenez, Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez kreditu gehigarria sortzeko foru arau proiektu bat igorriko zaie Batzar Nagusiei, berak onar dezan.

Gainera, 53/1992 Foru Arauaren 55. eta 63.2 artikuluek hau diote, konpromiso kredituei dagoen arauketa ezartzean: "Biltzar Nagusiek konpromezu-kreditu berriak onar ditzake edo hasieran onarturikoak aldatu, Gauzapean Foru Arauan emandako baimenaren zenbatekoa gainditzeagatik"

Foru arau honen izapideetan kontuan eduki dira araupetze onaren printzipioak, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, ezartzen dituenak eta maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskineko 3. artikuluan biltzen dituenak. Hala, nahikoa arrazoitu da azaldutako aurrekarietan hura onartu behar dela eta, gainera, jarduera arauemaile proportzionatua da, xedea, kaltetutako ustategien jarduera leheneratu eta berriz hastea, lortzeko ezinbesteko minimora mugatzen baita.

Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzeko dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela.

Efizientzia printzipioari dagokionez, proposatutako arautzea, duen izaera dela-eta, ez dakarke herritarrei ez administrazio karga osagarririk, ez premiazkoa ez denik.

Gainera, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak (15. artikuluan), eta otsailaren 18ko 4/2005 euskal Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak (3. eta 23. artikuluetan), xedatutakoa betez, arau hau emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren printzipioaren arabera planifikatu da.

### 1. artikulua

Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018ko ekitaldiko aurrekontuko 2/2019 kreditu gehigarria eta hari dagokion 2/2019 konpromiso kreditua onartzen dira, 950.000,00 eurokoak, "19.5.19. 1.40100.4100.7700001 Makineriako laguntza bereziak" gastuen egoerako partida sortu berrian. Haietatik, 700.000,00 euro 19.5.19 urtekoa ordaintzeko kredituari dagozkio eta 250.000,00 euro 19.6.20 urteko konpromiso kredituari dagozkio.

### 2. artikulua

Arabako Foru Aldundiak laguntza bereziak sortuko ditu, lehia askean, Arabako Samaniego herrian 2018ko azaroaren 16an gertatu zen suteak kaltetutako makineria ordeztzeko eskuratzeko, baldintza hauetan:

a) Diru laguntza jaso ahalko dute kaltetutako ustiategiek nekazaritza nahiz industriarako makineria berria eskuratzeko, sutean suntsitutakoa ordezteko.

b) Makineria talde bakoitzeko guztizko gehieneko inbertsio onargarriaren gainean ezartzen diren mugen barruan, diru laguntza jaso dezakeen inbertsio bakoitzaren aurrekontuaren gaineko laguntza ehuneko 35ekoa izango da.

c) Laguntza horien zuzkidura ekonomikoa 950.000,00 eurokoa izango da, honela banatuta: 700.000,00 euro 2019ko ekitaldiaren kostura eta 250.000,00 euro 2020ko ekitaldiaren kostura.

### **3. artikulua**

a) Arabako Foru Aldundiak ebaluatu egingo du, Foru Arau honen 2. artikuluan jasotakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiei kalte ekonomiko eta sozial nabarmena dakarkien eta beren geroko bideragarritasuna edo jarraipena kolokan jartzen duen edozein ezohiko inguruabar, kaltetutako ustiategien jarduera berrezarri eta berriz hasteko helburuz.

b) Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko azaroan Samaniegoko pabilioietan izandako sutean bezalaxe, eta Arabako Lurralde Historikoko nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiak kaltetzen dituzten ezohiko gertakarien aurrean, behar diren mekanismoak eta laguntzak bideratuko ditu kaltetutako pertsonen jarduerarekin jarraitzea ahalbidetzeko, Euskal Landa Garapeneko Planak baimentzen dituen maximoetan.

Amaierako xedapena. Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 27a

*Presidentea*

*PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA*